



## TERRORISMO BIHURTU ZEN KONTRATERRORISMOA

ARIKETA-ORRIA

BATXILERGOKO 2. MAILA (ESPAINIAKO HISTORIA)



CENTRO MEMORIAL DE LAS  
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO  
TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
OROIMENERAKO ZENTROA

## HELBURUAK

- + ETAz gain gure herrialdean jardun duten talde terroristak ezagutzea eta identifikatzea, bai eta horiek guztiek eragindako minari buruz hausnartzea ere.
- + Espainian jardun duten erakunde terroristen (bai ETA, bai inkontrolatuez, ultraeskuindarrez eta abarrez osatutako beste erakunde batzuk) jarduera krudela aztertzea, haien jatorria, praktikak eta jarduera-aldiak bereiziz.
- + Estatuko erakundeetatik terroreari eman zaion erantzuna baloratzea, haren egokitasuna eta akatsak kontuan hartuta.
- + Terrorismoaren biktima guztien testigantzak errespetuz entzutea, haien sufrimendura enpatiaz hurbiltzeko, haien justizia-nahia baloratzeko eta haien jokabide eredugarria aitortzeko.
- + Ideologia desberdinekin aldarrikatu arren, kasu guztietan, erailketa, estortsioa, bahiketa eta desberdina jazartzea justifikatu duen perbertsio etikoari buruz hausnartzea.

## GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu ahal izango baituzu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzak baketsuaren alde egiteko.

## DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 45/50 minutuko modulu baterako pentsatuta dago.

## BALIABIDEAK

Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta smartphoneak edo tabletak bezalako gailu mugikorak erabiltzeko aukera.

## EGILEA

Jesús Prieto



**Terrorismoa:  
“Borrokalaria ez  
diren pertsonen aurka  
erabiltzen den indarkeria  
klandestino, indarkeria  
egiten dutenen helburu  
politikoen aldeko beldur  
giroa sortzeko, edo  
gobernu baten edo  
nazioarteko erakunde  
baten erabaki bat  
behartzeko”.**

*Juan Avilés Farré*



*Eskuin muturraren atentatua Erreterian Ijurko-Illaramendi senar-emazteen aurka, 1980/03/28. Argazkia: Gallego, Kutxateka.*

"Eskuin muturreko taldeek, inkontrolatuek eta GALek eragindako indarkeriaren biktimen eskubideez ere hitz egin behar da. Ezin da terrorismo horien biktimak baztertzeko edo ahazteko hutsegitean erori; izan ere, zorionez, duela urte batzuk desagertu ziren arren, haien biktimek gure artean jarraitzen dute, eta, nola ez, ETaren biktimen eskubide berberak dituzte.

Diktaduraren ondoren, jokabide edo jardun politikorako modu bortitzak sortu ziren, eta sektore nazionalisten aurka edo ekintza kontraterroristen bidez jo zuten, polizia-aparatuekin, estatuko aparatuekin eta, kasuren batean, aparatu politikoekin nolabaiteko lotura izanez. Modu lausoan agertzen ziren, eta askotan desantolatuta ere bai. Haien biktimak terrorismoaren biktimak dira, eta hori Estatuko terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzko 32/99 Legearen esparruan definituta dago. Lege horren 2.1 artikuluan ezartzen denez, terrorismo-ekintzen biktimek edo talde armatuetako kide diren pertsonak edo herritarren bakea aztoratzeko helburuarekin jarduten dutenek egindako ekintzen biktimek erreparazioa jasotzeko eskubidea izango dute. Eusko Jaurlaritzako Biktimen Zuzendaritzak egindako txosten batean (2008), hainbat talde kriminalek, hala nola Triple A, Batallón Vasco Español, Grupos Anti ETA eta GAL taldeek, egindako 74 ekintza terrorista zenbatu ziren. Lehen kasua Iñaki Etxabe Orobengoaren erailketa izan zen, 1975ean. Jarduera-grafikoa aztertuta, intentsitate handieneko

epealdia 79. eta 80. urteen inguruan izan zen, eta ETaren jarduera handi batekin batera gertatu zen; beraz, terrorismo hori ETaren ekintzari emandako erantzun gisa har daiteke. Gero, indarkeriaren berragertze bat egon zen, GALek 84. eta 85. urteetan izandako jardunarekin batera gertatu zena; urte luze desagertu zen, 89. urtera arte, Josu Muguruzaren eta José Antonio Cardosaren erailketarekin (azken hau postaria zen Erreterian).

Nazioarteko Zuzenbidean oinarritutako legeak Egia, Justizia eta Erreparazioa eskatzen ditu biktima guztientzat. Egiari dagokionez, gertakari horiek ikerketa-maila eskasa dute. Kasu guztietan, susmo hedatua zen garai hartan polizia-aparatuek nolabaiteko konplizitate maila bat zutela, eta, gutxienez, leporagarria da eginbide oso urria egon zela ikerketak eta beharrezko bilaketak burutzeko orduan, justizia eman ahal izateko. Biktimen aitortzak, terrorismoaren biktima guztien aitortzak, euskal gizarteari lagundu behar dio adiskidetzearen bidean aurrera egiteko. Ildo horretan, biktima guztiek, ETarenak, GALenak edo Batallón Vasco Españolenak izan, potentzialtasun bat partekatzen dute: sufrimendua ongarri bihurtu ahal izatea, halako ekimenetatik urriegi dagoen gizarte batean bizikidetzak emankor bihurtzeko".

Txema Urkijo.<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Biktimekiko Elkartasun Jardunaldiak. Bakearen Aldeko Koordinakundea, Vitoria-Gasteiz, 2010.

## EZ DUGU INOIZ JAKIN

## NORK ETA ZERGATIK

## EGIN ZUEN

Mariak kontatu digu. Bere anaia José Antonio Cardoso, ilusioz eta bizitasunez betetako gazte bat, posta zerbitzuetan lan egiten zuena, 1989ko irailean hil zuten, hartzaileari entregatzera zihoan bomba-pakete batek eztanda egin ondoren. GALek ez zuen inoiz ekintza hau aldarrikatu. Neska gazte honek bere esperientzia, bere oinazea, bere etsipena eta bere gaintitze ereduak helarazten dizkigu.

"Nire anaiak ebentual gisa lana egiten zuen Correosen. Arratsalde hartan bomba baten leherketa entzun genuen, amak zerbait susmatu zuen, berehala irten baitzen kalera, eta nik lagundu egin nion. Auzokide batzuek esan ziguten nire anaia larri zaurituta zegoela Iñigo Iruin abokatu ezagunaren postontzian sartzea zihoan bomba-pakete baten ondorioz; ospitalera iritsi ginenean, albiste lazgarria eman ziguten: nire anaia hil egin zen deflagrazioaren ondorioz jasotako zauri izugarriengatik. Izugarria izan zen. Inorekin edo ezerekin sartzen ez zen mutil bat, pertsona erabat errugabe bat horrela suntsituta... Nire ama izan zen okerren pasatu zuena, izugarri sufritu zuen, eta, nire ustez, ez zen inoiz bere onera etorri. Zoriontsu bizi zen familia bat hondoratu egin zen, ilunpetan eta tristuran murgilduta. Nire seme-alabak jaio ziren arte, amak ez zuen berriro irribarre egin, ez zuen bizitzeko arrazoirik izan. Biktimei laguntzeko erakunde batean sartu zenetik, babesa sentitzen hasi zen, entzuna sentitzen, eta laguntza psikologikoa ere izan zuen. Horrek asko lagundu zion, baina beti geratzen zen azken galdera hori. Baina nor izan da? Zergatik?"



El Diario Vasco egunkariaren lehen orrialdea, 1989ko irailaren 21koa. KMK Prentsa Historiko Digitala.

Herrian atentatua gaitzesteko eta familiari laguntzeko manifestazioak egin ziren, baina politikoki manipulatzeko zitezten beti. Onartzen dut lagun askok, gertuko jendeak, babesa eta arnasa eman zidatela, aitortu egin behar dut eta eskertu, baina, azkenean, bakarrik sentitzen nintzen.

Orain, senarrari eta seme-alabei esker, ondo nago; baina orotzapenak beti irekitzen du zauri hori. Ez dugu inoiz jakin nork egin zuen nire anaiaren hilketarekin amaitu zen ekintza hori, bai izan zirela paper batzuk, GALen sumarioan argitara atera ziren frogak batzuk, baina inoiz ez zuten inor atxilotu. Ezintasun sentsazio handia sentitzen dugu, eta nik neuk egia jakitea nahiko nuke. Dena den, ez mendekurik desiragatik, justizia premia hutsagatik baizik. Berriro diot ez dudala mendekurik nahi, ez dut gorrotorik sentitzen. Aldaketa bat ikusiz gero, damua ikusiz gero, uste dut... hainbeste kalte egin zigun pertsona edo pertsonak barkatzera ere hel nintekeela".<sup>2</sup>

## IRADOKITAKO JARDUERA

1

**Fitxa didaktikoaren sarrera irakurri ondoren, saioaren dinamizatzailerak Mariaren testigantza irakurtzeko eskatuko dio taldeko pertsona bati. Atzeko musika egoki batekin egin daiteke.**

2

**Irakurri ondoren, ikasleei eskatuko zaie minutu batzuek eta bakarka gertatutakoak hausnartzen saiatzeko, bai eta Mariaren lekuan jartzeko ahalegina egiteko ere.**

3

**Banakako hausnarketaren ondoren, ideia-zaparrada bat egingo da, arbelean apuntatuz edo post-it tekniken bidez (ikasle bakoitzari kolore desberdineko bi post-it emango zaizkio). Parte-hartzaile bakoitzak lekukotza honetan ikusitako alde negatiboarekin edo krudelenarekin lotura duen hitz bat esan edo idatzi behar du kolore batean, eta, era berean, haren alderdirik positiboarekin edo itxaropentsuenarekin lotu behar den hitz bat idatzi behar du.**

4

**Parte-hartzaileek arbelean ateratzen den mapari buruzko iruzkinak egingo dituzte. Iritzi guztiak errespetatu behar dira, baldin eta gizalegez eta iraintzeko asmorik gabe egiten badira. Hitz egiteko txandak errespetatu behar dira, esku hartzen duenari ez zaio etengo eta moderatzailearen erabakia ontzat hartuko da.**